

## ESPIRITUAREN DOHAIK

1

Laster bi mila urte ditugu  
Jesus gizon egin zala,  
ahal dan ondoen hau ospatzeko  
egin jaku dei zabala.  
Gogoan hartu aurtengo txanda  
Espirituak dauala;  
otoitz ta jardun, gertatzen dabil  
Jesusen Eleiz leiala,  
Espirituak bere dohaiez  
eurrez ornidu gaizala.

2

Jesus Maixua da kristauontzat  
bizitzako gidaria,  
baina munduak zabaltzen deusku  
saltsa-maltsa ugaria.  
Espiritua gudan daukagu  
Jesus Berak ixuria;  
egia zer dan jakin dagigun  
jainkozko **JAKITURIA**,  
maixuak maixu, baina Jesus da  
bakarrik geure-geuria.

3

Gatxez ta gaiztoz harjota dago  
Adan zaharraren sustraia,  
guk ezin dogu ezagutu ta  
bete Jainkoaren nahia.  
Baina Jesusek bihurtu deusku  
jainko-semetzako gaia,  
ta Espirituak ixuri deusku  
**ADIMENAREN** dohaia,  
bere laguntzaz burutu daigun  
Aitaganako bidaia.

4

Hau zoriona, Jesus Bera da  
danetan gure kidea,  
Berari esker, gizakia da  
Jainkoaren senidea.  
Gudan bizi dan etxelaguna  
Espiritu Aixkidea,  
bere Hitzez ta bere dohaiez  
damosku **BURUBIDEA**,  
buru-bihotzez daigun Aitaren  
gogoko erizpidea.

5

Azken orduan Jesus maiteak  
emon euskun zeregina:  
Jainko Erreinu egin daigula  
mundu oker erdikina.  
Okerra beti indartsua da  
Eleiza, barriz, erkina;  
baina hor dago **SENDOTASUNA**  
Espiritu-eragina,  
bere laguntzaz eginkor jaku  
geuretzat dana ezina.

6

Alperrik jardun, Jainkoa nor dan  
buruz ezin da ulertu,  
Berak nahi dauan lez bakoitzari  
egiten jaku agertu.  
Espiritua dabil lanean  
eta ezin da aspertu;  
geuk jakin barik, argitzen gaitu  
eta **JAKINTZAZ** zuzpertu;  
Jainkoa nor dan Berak bakarrik  
agertu daike eta zertu.

7

Ze misterio eta da, jaunak,  
fededunaren bihotza!  
Seguru asko barru-giroa  
ez da izango leihotza.  
Espirituak nahi dauan eran  
zuzentzen dau bakoitza;  
barru-muinetan ixurtzen deutso  
dohaiez maite- **OTOITZA**,  
Jaungoikoari **AITA** deitzeko  
grazi-ahalmena damotsa.

8

Maiteminduak ba ete deutse  
alkarri lotsa-bildurrik?  
**LOTSA-BILDUR SANTUAK** ezik,  
ez da besteren apurrik.  
Jainkoa eta kristau zintzoa,  
nun da hain lagun samurrik?  
Espirituak lagun ezkeru,  
hor ez dago, ez, guzurrik;  
hau dakianak daki, bestelan  
inok ezin emon hurrik.

A- Mafirtzel